

## **05/08 IRIZPENA**

Lontxo Oihartzabal jn.  
Javier Del Campo jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Pilar Ramírez and.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Otxoa jn.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2005eko apirilaren 27an egindako bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: diru funts publikoez sostengaturiko EAeko unibertsitatez kanpoko mailetako ikastetxeetako 2005/2006 ikasturteko egutegia egiteko oinarrizko arauak finkatzen dituen Agindu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.  
Idazkari Teknikoa.

### **SARRERA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio diru funts publikoez sostengaturiko EAeko unibertsitatez kanpoko mailetako ikastetxeetako 2005/2006 ikasturteko egutegia egiteko oinarrizko arauak finkatzen dituen Agindu proiektua, hari buruzko nahitaezko txostena eman dezan.

Halaber, helarazi dira Ikasketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaritzak emandako txostena, eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren memoria.

### **AURREKARIAK:**

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, xedatzen du ikastetxe bakoitzak, bere autonomia erabiliz, bere antolakuntza eta funtzionamendu arautegia onartuko duela, eta bertan jasoko direla bere organoen osaketaz, eskumenez eta aukeratzeko eraz ikastetxeak egindako hautuak, hala nola beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak ikastetxeak ongi funtzionatzeko, eta ikasketa-jarduerak eta erregimen administratibo eta ekonomikoa zuzen garatzeko.

Ikastetxeek, bere autonomia erabiliz, beren ikasketa-jarduerak antolatu eta planifikatu dituzte. Ikasketa-jarduerak denboran garatzeko eskola egutegia finkatu behar da ikasturte bakoitzerako.

## **EDUKIA**

Agindu proiektu honek 3 artikulua, azken xedapen bi eta lau eranskin ditu.

1. artikulua arauaren xedea eta eremua zehazten ditu.

2. artikulua, eskola egutegiek errespetatu behar duten gutxieneko egun kopurua finkatzen du eta, behar denean, ordu kopurua ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. Hauetan, behar bezala bereizten ditu Batxilergo eta heziketa zikloen irakaskuntzak. Halaber, Eguberrietako eta Aste Santuko gutxieneko oporraldiak zehazten dira, hala nola EAEn ofizialak diren jaiegunak, herriko eta lurraldeko zaindariaren jaiegunak eta bakoitzari dagokion zaindariaren jaieguna errespetatu beharra.

3. artikulua egutegia egiteko prozedura ezartzen du eta proposamenak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaltzeko muga-eguna zehazten du. Azkenik, aurrez onartu den egutegia aldatu nahi izanez gero bete beharreko baldintzak adierazten dira.

Azken xedapenak arautegi garapena baimentzen du eta araua indarrean noiz sartzen den zehazten du.

## **BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Arau honek ikastetxeek eskola egutegia egiteko errespetatu behar dituzten oinarritzko arauak jasotzen ditu bere artikuluetan. Arau hau urtero argitaratzen da eta ez du aldaketarik izan aurreko urteekin alderaturik. Hau da Euskadiko Eskola Kontseiluari irizpena eskatu zaion lehenbiziko aldia, hori dela eta, geure esker ona adierazi nahi dugu gure iritzia eskatzearen.

Gure iritzian, proposatutako oinarritzko arauak egokiak dira, ikastetxeen autonomia errespetatu eta sistema osorako minimo komun batzuk bermatzen ditu eta.

Hala ere, Haur Hezkuntzari dagokionez, salbuespen bat egin beharko litzateke apika bi urtekoen ikasgelen kasuan. Hartara, bada, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko 0-3 urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolak arautzen dituenak, Ordutegiari eta Egutegiari buruzko 6. kapituluaren ondokoa zehazten du (EHAA, 02/12/31):

*1. Zero urtetik hiru urtera bitarteko Haur Eskolek zerbitzu zabala eman behar izango dute familia bizitza eta lan bizitza bateratu ahal izateko. Nolanahi ere, haurrak ezin izango dira oro har egon ikastetxean zortzi ordu baino gehiago. Haur Eskola bakoitzak bere ordutegia taxutuko du eta ordutegi hau zabaltzeko edo malgutzeko baldintzak*

***zehaztuko ditu, haurren eta familien beharren arabera. Dena dela, Haur Eskoletako ordutegiak zerbitzu honen heziketa eta laguntza funtzioa bermatuko ditu.***

*2. Zero urtetik hiru urtera bitarteko Haur Eskolek ikasturtetan antolatutako emango dituzte beren zerbitzuak, hauek irailean hasi eta 10 eta 12 hilabete bitarteko iraupena izango dute.*

*3. Landa eremuan, hiru urtetik beherakoentzako hezkuntza eta laguntza zerbitzuak tes-tuinguru bakoitzeko behar berezietara egokituko dira.*

Bi urtekoen ikasgeletan, izan duten bilakabide historikoa dela medio, hainbat kasuistika dago; hartara, ikastetxe publikoetan kokatutako bi urtekoen ikasgelak gaine-rako etapetarako ezarritako arauen menpe daude, eta itunpeko ikastetxe batzuetan, be-rriz, honelako ikasgelak Haur Eskolen arautegiaren menpe daude.

Gure iritzian, egoera honek diraeino, komenigarria litzateke arau honetan, Haur Hezkuntzako ordutegiaz ari dela, ondoko adierazpen honen antzeko zerbait jasotzea: “... abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuan Haur Eskoletarako zehaztutakoaren salbuespena-rekin.”

- 2.1 artikuluan jasotzen den aparteko deialdiari dagokionez, Kontseiluak LOCE-ren erreformari buruz eman zuen txostenean ondokoa esaten zen: “*aparteko probek, aplikatu ziren moduan, ikasturte amaierako ebaluazioak bukatu eta be-rehala, ez dute balio ikasleen errekupeazio eraginkorra lortzeko. Argitu be-harko litzateke aparteko deialdiari eman nahi zaizkion balioa eta garrantzia.*”

Nahiz eta arau hau ez den behar dena eredu birplanteatzeko, beharbada, proba bat eta besteren artean gutxieneko denbora bat finkatu beharko litzateke.

- Azkenik, beharrezko deritzogu deialdi arruntean ikasgai guztiak gainditu eta maiatzaren erditsutik klaserik gabe dauden Batxilergoko 1. mailako ikasleen egoeraz ohartarazteari.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2005ko apirilaren 27an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik : Eva Blanco

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Sinaturik : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.